

EMAKUMEEN AGERIKOTASUN ETA BALIO BERA

BIGARREN HEZKUNTZA

NESKAK ETA MUTILAK KOMUNIKABIDEETAN

Soilik neskek bere burua ikusten badute (emakumeek ikusten dute) mutilak agertzen diren sail, albiste eta izenburu "garrantzitsuetan", irudikatzen ahalko dute etorkizunean, beren bizitza-ibilbidean, jarduera, sail, albiste eta izenburu horiek betetzen.

- ▶ Soilik neskek ikusten badute komunikabideetarako eta gizarterako **mutilak bezain garrantzitsuak** direla, protagonista gisa ikusten ahalko dute bere burua, eta ez bigarren mailako protagonista gisa, mutilak beraiek bezalakoak balira bezala tratatzen ahalko dituzte eta beraiekin berdintasuneko eta tratu egokiko harremanak izaten ahalko dituzte.

Soilik mutilek neskek (emakumeak) ikusten badituzte beraiek agertzen diren sail, albiste eta izenburu "garrantzitsu" berdinetan, etorkizunean irudikatzen ahalko dituzte jarduera, sail, albiste eta izenburu horiek betetzen.

- ▶ Soilik mutilek ikusten badute komunikabideetarako eta gizarterako neskek **beraiek bezain garrantzitsuak** direla, protagonista gisa ikusten ahalko dituzte neskek, eta ez bigarren mailako protagonista gisa, beraiek bezalakoak balira bezala tratatzen ahalko dituzte eta beraiekin berdintasuneko eta tratu egokiko harremanak izaten ahalko dituzte. Bestela, jarraituko dute neskek baino gehiago eta hobego direla pentsatzen, eta neskek tratatuko dituzte nagusitasunetik eta gutxiespenetik, baita mespretxutik eta indarkeriatik ere.

Beraz, gure ikasleen hezkuntzan komunikabideek duten garrantzia oso handia da. Kontuan izanda, gainera, ikasleak handitzen doazen heinean komunikabideak autonomia eta erraztasun handiagoz erabiltzen dituztela. Beraz, berdintasunetik abiatuta, **komunikabideak ikusi eta irakurtzen irakastea modu justuago** batez eta tratu onekin bizitzeko hezteko aukera eskaintzea da.

NESKA NERABEENDAKO ERREFERENTZIAK

Hedabideek eta sailek, bereziki nerabeei zuzendutakoak, nagusiki bi profil erakusten dituzte:

- ▶ **Ama edota etxeoandrea:** eguneratua bere itxura eta irudian (orrazkera, arropa, etab.) eta etxetik kanpoko lanarekin (sarritan lanaldi murriztuarekin, arautu gabeko lanarekin, etab.). Hala ere, ez da lan-karga bikoitzari buruzko aipamenik egiten edo ardurakidetzatza eta ordutegiak bateratzearen gaineko iruzkinik...
- ▶ **Emakume sofistikatua edo sexy-a** (kasu batzuetan zorigaitzoko emakumearen ezaugarri batzuekin). Edertasuna eta itxura fisikoa arrakastarako gako eta bide dira, orokorrean (nahiz eta beti horrela ez izan) arrakasta duen gizon baten bikotekide izaten laguntzen duelako.



kantitatea eta kalitea

Pentsa ezazu egunero ikusten duzun prentsan, aldizkarietan, telebistan, interneten. Gizonak agertzen diretan edo emakumeak? gizon eta emakume kopuru bera agertzen da bertan? arrazoi berak direla eta, modu berean eta programa eta sail beretan agertzen dira?

Orokorrean, komunikabideek **jasotzen dituzte gizonen jarduerak eta mundua, eta ez emakumeen jarduerak eta mundua.** Populazioaren erdian jartzen dute arreta eta alde batera uzten dute beste erdia eta honen lana eta eguneroko ekarpena. Hori dela eta, neskek eta emakumeek ez dute beren burua irudikatzen bizitzaren jarduera eta esparru batzuetan. Eta mutilek eta gizonak ere ez dituzte emakumeak jarduera horietan ikusten.

lan iradokizunak

Gure ikasleek irakurtzen dituzten **argitalpen "gazteen" bilduma** proposamena (prentsa sailak, Internet guneak, irri saiok, etab.), horiek aurkeztu, zergatik horiek aukeratu eta irakurtzen dituzten eta ez beste batzuk esan dezaten, etab.

Argitalpenak **trukatzea**, alderatzea, horiei buruzko iritzia ematea, etab. Jaso eta aztertu beharko ditugun gaiak, kezak, zalantzak, interes eremuak, diferentziak, eztabaidak etab. agertuko dira: non eta nola agertzen dira emakumeak eta gizonak?

"neskena", "mutilena"

Litekeena da ia-ia alde aurrekoa den lehendabiziko gai bat agertzea: "nesken aldizkariak (sailak)" versus "muti-

len aldizkariak (sailak)", edo "nesken aldizkariak dira, mutilenak ez daude. Tira, mutilenak kirol aldizkariak dira, neskek ere irakurtzen ahal dituzte, nahi izanez gero". "Eta neskenak batez ere musikari buruzkoak dira, mutilek ere irakurtzen ahal dituzte, nahi izanez gero". Etab.

Batzuek eta besteek ateratzen dituzten ondorioak izaten dira: **beste sexuari gustatzen zaiona "ez dute nahi", "ez zaie gustatzen"**. Batzuek eta besteek diotenaren arabera **"gustatzen zaiguna aukeratzen dugu"**; neskak eta mutilak "horrelakoak direlako", oso libreak eta **"oso desberdinak"**.

gustua dela eta

- Neska guztiok interes eta gustu berak ditugu? mutil guztiok interes eta gustu berak ditugu?
- Nola da posible kointzidentzia hori?
- Taldeka edo banaka aukeratzen dugu?
- Nola osatzen da gustua, gustatzen zaiguna, nahi duguna eta interesatzen zaiguna?
- Naturala da, biologikoa, hereditua, hormonal...?
- Ikasitako zerbait da? non eta nola ikasten da? beste modu batez ikasten ahal zen?

gustuak ikertzea

- Gustu, zaletasun, gai edo eduki zehatzen gainean: kirolak, musika, moda, informatika, jolasak, osasuna, zainketa pertsonala, zinema, harreman sentimentalak, sexua, horoskopoa, etab.
- Berdin ateratzen al dira nesken gustuak eta mutilenak?
- Komunikabideetan agertu eta elkarriketatuen diren pertsonaia eta pertsonen profilararen azterketa. Balorazioa.
- Argitalpenen testuingurua: nori zuzenduak diren, prezioa, parte hartzen duen irakurle mota, etab.
- Irakurketaren testuingurua: iruzkinak egiten dira edo ez; non irakurtzen dira: etxean, ikastetxean, kalean... Estali egiten da edo kideekin (neskak edo mutilak) partekatu, etab.
- Azalpenak eta argudiatzeak, eztabaidak, mahai-inguruak, datu estatistikoak...
- Artikuluak berridatzi, irudietatik soilik abiatuta, edo alderantziz.
- Gaiari buruzko horma-collagean, sailka, kontzeptuka, etab...
- Antzezlanak, esketxak, parodiak, etab.

NESKENDAKO EREDUAK

Bestalde, orokorrean, bai profil batean eta bestean ezaugarri komun batzuk ikusten ahal dira:

- ▶ **Gazteak, ederrak eta argalak**, itxura osasuntsu eta oso zainduarekin, oso apainduak eta itxura ezin hobearrekin, "argazkirako".
- ▶ **Ez dago emakume heldu edo zaharrik**, gizen edo itxusirik, itxura "baldarrekoak" eta gorputz ez hain "osasuntsukoak".
- ▶ Emakumearekin lotutako **zientziaren, teknologia berrien**, prestakuntzaren, teknikaren eta abarren aipamenek oso urriak izaten jarraitzen dute..
- ▶ Ondokoari buruzko aipamenak ugariak dira: **harreman pertsonal onak**, sinpatia eta komunikazioa, ordena eta administrazioa, xarma eta adeitasuna, zuhurtzia eta konfiantza, etab.
- ▶ Ugari dira **emakumeen ikusmolde "natural", "genetikoari"** buruzko aipamenak: izatez gara desleialak?", zer eskatzen dizu gorputzak?". Desleialtasuna eta gorputzaren kontzeptua, beste gauza askoren artean, eraikin sozio-kulturalak ez balira.

MUTIL NERABEENDAKO ERREFERENTZIAK

Hedabide eta sailek, batez ere nerabeei zuzendutakoak, erreferentzia mota hauek erakusten dituzte batez ere:

- ▶ **Gogorra edota kirolaria**, ederra, "gihartsua" eta burmuin gehiago edo gutxiagorekin. Itxura fisiko "maskulinoa" arrakastarako gakoa eta bidea da, orokorrean (ez beti) oso ongi ordaindutako lanetan.
- ▶ **Profesional arrakastatsua**, eraginkorra, aditua, arrakasta handikoa. Sarritan ekintzaile eder nekaezina, lider gaitasunarekin. Batzuetan, gainera, sentikorra eta atsegina.
- ▶ **Harroputz "baldarra" "bihurria"**, "aurpegiduna" "tontoarena egiten" ongi pasatzen duena, gehiago zuzentzen du bere jarduera beste gizonengana emakumeengana baino, emakumeak animatzen ditu "bere bihotza" aurkitzera.

MUTILENDAKO EREDUAK

Profil hauetan guztietan elementu komun batzuk daude:

- ▶ **Ez dago etxeko jaunik**, etxeko lanak egiten dituen gizonik. Eta apenas pertsonen zainketaz arduratzen diren aita edo gizonak, alde batera utzita profesionalak direnak.
- ▶ Beren jarduera esparrua lan mundua da, "lanaren oihana". Ez dira beren bizitzari eta familia ardurei buruzko aipamenik agertzen, ezta ordutegiak bateratzeari eta abarri buruzkoak ere.
- ▶ **Badira gazteak, eta baita helduak ere** (emakumezkoen kasuan baina askoz zaharragoak). Guztiak ederrak eta indartsuak, itxura zaindu eta osasuntsukoak eta gorputz -edo soin - landuarekin.
- ▶ **Zientzia, teknologia berriak**, prestakuntza, ordenagailuak, makineria, ibilgailuak, armak eta abarrei buruzko aipamenak etengabeak eta ugariak dira, eta baita kirolari eta jarduera fisikoari egindako aipamenak ere.
- ▶ **Autoa** (eta motorra, ontzia ...) boterearen, arrakastaren eta lortutako statusaren eta bere jabearen izaeraren eta nortasunaren proba eta sinbolo gisa aurkezten da.



MUNDUA. NIRE MUNDUA, ZINEMA MUNDU BAT

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana



...(A)RI BURUZKO FILMA

hezkidetza **lantzen**

BEHAKETA ETA AZTERKETA: ZINEMA ISTORIOAK, BIZITZA BEZALAKOAK?

► **Osatu ezazu beheko taula**, film mota horretako protagonistak emakumeak edo gizonak izaten diren adieraziz. Horretarako, pentsa ezazu zein film izenburu eta zein protagonista etortzen zaizkizun burura kasu bakoitzean. Emakume gehiago edo gizon gehiago pelikula mota bakoitzean? zure ustez, zein da horren arrazoia?


..... (E)KO FILM BATEKO PERTSONAIA NAGUSIAK	Emakumeak	Gizonak
Antzinako Erroma, Troia, Grezia, etc. Peplum...		
Western-ak, tiroetakoak, diligentiak, urrearen sukarra... Far West.		
Kapa eta ezpata, kapel lumadunak, belarri-ziridun botak, piratak...		
Erdi aroa, sorginak, arkuak, lantzak, torneoak, gurutzadak...		
Belikoak, XX. mendeko gerrak, I. eta II. mundu gerrak, naziak, Vietnam...		
Zientzia-fikzioa, espazioa, ozeanoa, robotika, informatika...		
Poliziakoa, lapurretak, iruzurrak, mafia, lege lehorra, jokia, drogak...		
Espioitza, zerbitzu sekretuak, ezinezko misioak...		
Bidaia, aurkikuntzak, biziraupena, abentura...		
Hondamendi naturalak, tornadoak, sumendiak, lurrikarak...		
Beldurra, ikara, hilketak, jazarpena, intriga, psikosia...		
Munstroak, ilunabarra, likantropoak, mutanteak...		
Balentriak eta kirol ibilbideak, gainditzea, porrotak eta garaipenak...		
Maitasuna, komedia erromantikoa, bikote harremanak, sexuen arteko gerra...		
Komedia basatiak, absurdua, parodiak...		
Errealitatean oinarritua, ohitura-dramak, ohitura etnikoak...		
Zinema familiarra, haurrentzakoak, bazkalostekoa, animaliak, familiak...		
Negar egiteko, melodrama, problematikoa, langabezia, eritasunak, etab.		
Barre egitekoak, umorea, parodia, ironia, pertsonaia bitxiak...		
Eskolak, barnetegiak, kanpamentuak, oporrak, bidaia...		
Pertsonai ospetsu, meritudun, historiko eta abarren biografiak		

- Kopuruen arteko **aldeaz gain**, alderik bada gizonen eta emakumezkoen pertsonaien artean? zeintzuk dira alde nagusiak? zein gauza mota egiten dituzte emakumezkoen pertsonaiak eta gizonenak?
- **Zein film motatan** dira nagusi gizonen protagonistak eta zeintzuetan dira nagusi emakumezkoenak? zer dela eta uste duzu hori horrela dela? zerikusia du gizonen eta emakumeen bizitza errealean duten protagonismoarekin, zure inguru hurbilean adibidez?
- **Zeintzuk** joaten dira gehiago film mota bakoitza ikustera: emakumeak, gizonak, neskak, mutilak...? zergatik?

MUNDUA. NIRE MUNDUA, ZINEMA MUNDU BAT

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana


**PERTSONAIA NAGUSIAK
ETA BIGARREN MAILAKOAK**


hezkidetzalantzen

BEHAKETA ETA AZTERKETA: ESAIDAZU NOLA ARITZEN ZAREN ETA NOR ZAREN ESANEN DIZUT

- **Osatu ezazu beheko taula** erdiko eta eskuineko lauki bakoitzean filmetako emakume eta gizon protagonisten gehingoari dagozkion ezkerreko laukitxoko hitzak erabiliz. Kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkizun bestelako hitzak gehitu.

ESAIDAZU NOLA... ETA ESANEN DIZUT...	Emakumeak	Gizonak
Zein itxura fisiko dute? Adina, osasuna, edertasuna, altuera, pisua, dotorezia, garbitasuna, janzkera, osagarriak, koloreak, itxura, portaera, hitz egiteko modua, keinuak, tik-ak...		
Zein tresna erabiltzen dute? Higiene pertsonala, mandarra, garbiketa, baxera, janaria, edaria, armak, zaldiak, autoak, lanabesak, musika tresnak, zigarroak, xiringak, hegazkinak, ordenagailuak, telefonoak, betaurrekoak, maletatxoak, jokoak...		
Zein tokitan ibiltzen dira? Hiria, landa, jauregia, gaztelua, baserria, basoa, lezea, itsasoa, txabola, ziega, dorrea, ontzia, sukaldea, ikuilua, aretoa, garajea, laborategia, unibertsitatea, enpresa, bulegoa, kasinoa, denda, taberna...		
Zer egiten dute? Ehizatu, janaria prestatu, garbitu, borrokatu, josi, zaldiz ibili, jan, edan, abestu, dantzatu, lo egin, bidaiatu, gobernatu, agindu, sendatu, atzetik ibili, ihes egin, ikertu, aurkitu, lehiatu, oihukatu, negar egin...		
Zer erakusten dute? Ausardia, eskuzabaltasuna, guraria, abilezia, xalotasuna, noblezia, gaiztakeria, jakin-nahia, sinpatia, otzantasuna, harrotasuna, maitasuna, apeta, adimena, poza, dibertsioa, agintea, boterea, adeitasuna, erronka, gainditzea...		

- **Bada alderik** gizonezkoen eta emakumezkoen pertsonaien artean? bi pertsona eredu desberdin sortzen dira bizitzeko bi era desberdin? bi kasu horiek berdintsuak dira? filmetan gauzak ongi joaten zaizkie bie? bizitza errealean ere ongi joanen litzaieke? horietakoren batek abantailarik izanen luke? zertan? zergatik?
- **Egizu** buruz oroitzen dituzun gizonezko aktoreen **zerrenda** bat eta emakumezko aktoreen beste bat, kontsultarik egin gabe. Egin itzazu filmetako protagonisten beste bi zerrenda, emakumeena bata eta gizona beste. Zerrenda bat bestea baino luzeagoa al da? berdin gertatzen da neskak eta mutilak egindako zerrendekin? zergatik?



MUNDUA. NIRE MUNDUA, ALBISTE MUNDU BAT

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

PERTSONA EZAGUNAK ETA FAMATUAK,
ZEIN DA ZEIN?

hezkidetzalantzen

GIZATERIAREN HISTORIARI EGINDAKO EKARPENAK ETA ENTZUTE HANDIKO IZENAK

- **Idatz ezazu sail bakoitzean** emakume eta gizon garrantzitsuen izenak (adibidez jaio zinenetik gaur arte), albiste izan direnak edo jarduera esparru bakoitzean pertsona ezagun eta famatuak izan direnak. Idatz ezazu oroitzen dituzun izenak kontsultatu gabe.

SAILAK, ARLOAK, ESPARRUAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Politika, nazionala, nazioartekoa...		
Ekonomia, enpresa, lana, enplegua, burtsa, finantzak... izokin kolo- reko prentsa.		
Zientzia, teknologia, medikuntza...		
Kirolak.		
Kultura, literatura, zine- ma, telebista, artea, moda...		
Gizartea, esamesak, prentsa arrosa...		

- **Alderatu itzazu zerrendak.** Bada eremurik non gizonezkoen izenak emakumezkoenak baino askoz gehiago oroitu dituzun? zeintzuk? zergatik?
- Oroitu dituzun emakumeen eta gizonen artean, **alderik bada** batzuk eta besteak ezagunak izateko arrazoiaren artean? albiste mota beragatik izan dira albiste? antzeko lanak edo lan desberdinak egiten dituzte?
- **Zerrendak kontsultatu eta osatu itzazu parekatu arte:** kopuru bera eta antzeko merezimendu edo arrazoiak.



MUNDUA. NIRE MUNDUA, ALBISTE MUNDU BAT



ALBISTEAK. NORK ZER EGITEN DU?

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **l**antzen

EGUNEROKO PRENTSAREN ARGAZKIAK: JENDE ETA GAUZA GARRANTZITSUAK

- ▶ **Zenbatu itzazu** beheko sail bakoitzaren argazkietan agertzen diren emakumeak eta gizonak.
- ▶ **Osatu ezazu beheko taula** sail bakoitzaren argazkietan agertzen diren emakumeen eta gizonen kopurua idatiz. Irakurri itzazu argazki-oinak eta izenburuak eta idatzi itzazu emakume eta gizon horien lanbideak (suhiltzaila, etxeko lanak...) eta argazkia argitaratu izanaren arrazoia (lana, asmakuntzaren bat, istripua, ezkontza...).

GAURKO PRENTSAREN ARGAZKIAK ONDOKOETAN	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Zb	Albistearen arrazoia	Zb	Albistearen arrazoia
Lehenengo orrialdea.				
Politika, nazionala, nazioartekoa...				
Ekonomia, enpresa, lana, enplegua burtsa, finantzak... izokin koloreko prentsa.				
Zientzia, teknologia, medikuntza...				
Kirolak.				
Kultura, literatura, zinema, telebista, artea, moda...				
Azkeneko orrialdea.				


- ▶ Guztira emakume edo gizon gehiago **agertzen dira?** eta sail bakoitzean? zergatik? zer deritzozu horren inguruan?
- ▶ Emakumeak eta gizonak agertzeko lanbide eta arrazoen artean bada **alderik?** zergatik?
- ▶ Argazki horiek **islatzen** ahal dituzte atzoko gertaera garrantzitsuak edo soilik zati bat? zein? zergatik? zer uste duzu?



MUNDUA. NIRE MUNDUA, TELEMUNDUA

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK.
MITOAK ETA ERREALITATEAK

hezkidetzalantzen

EGIA ALA GEZURRA

▶ Irakurri itzazu telebista programa zenbaitetan entzundako esaldi hauek. Adierazi ezazu egiazkoak edo gezurrezkoak iruditzen zaizkizun, hau da, ea uste al duzun emakume eta gizonetan benetan betetzen direla.

▶ Aldera itzazu zure erantzunak zure ikaskideen erantzunekin. Ados al zaudete? zeinetan bai eta zeinetan ez?

▶ Emakume baino gizon guxtiago daude gauza interesgarriak egiten?

▶ Gizonezkoek hobeki egiten dituzte gauzak, eta hori dela eta gehiago ateratzen dira prentsa, telebista eta abarretan?

ZER DELA ETA EZ DIRA EMAKUMEZKOAK AGERTZEN?	egia	gezurra
Gizon aurkezleek hobeki azaltzen dituzte albisteak		
Ez da emakume zientzialaririk agertzen halakorik ez dagoelako		
Gizonezkoak hobeak dira zientzia eta teknologian		
Emakumeek ez dute nagusi eta zuzendari izan nahi		
Emakumeek diru gehiago jasotzen dute lan beragatik		
Gizonezkoen kirola beste gauza bat da		
Gizonak dibertigarriagoak dira, "frikiagoak"		
Emakumezko aktorea izan nahi baduzu ederra izan behar zara		
Emakumeek ez dute agintzeko balio		
Emakumezkoek ez zaie politika interesatzen		
Beti horrela izan delako eta ohitura delako		
Talde bat zuzentzeko bibotea behar da		
Emakumeak ez dira fidatzekoak, sekretuak gordetzen dituzte		
Gizonezkoak astakiloagoak gara, baina zintzoagoak		
Ekonomia gizonezkoen kontua da		

NOR ARI DA HIZKETAN, EMAKUME BAT ALA GIZON BAT, NOLA DAKIZU HORI? ▶ Irakurri itzazu hiru lekukotasun hauek eta idatz ezazu laukian emakumea edo gizona den eta adierazi ezazu zergatik modu laburrean.

"Bai, ongi nago. Goizeko entrenamendua utzi dut dentistarengana joan behar nuelako. Ez, ez, inolako lesiorik. Arratsaldean normaltasunez joan naiz entrenamendura, Bai, karies txiki bat ez besterik. Bai, animoz ongi nabil. Ea afizio guztiaren laguntzarekin irabazten dugun".

EMAKUMEA GIZONA

zergatik?

"Oso karrera luzea eta zaila ikasi dut. Egin ditudan ikerketak direla eta hiru sari lortu ditut Japonian eta Estatu Batuetan. Baina elkarrizketetan galdetzen didaten gauza bakarra da ea familia osatzeko asmorik ote dudan, nire bikotekidearekin ongi moldatzen ote naizen, zein den nire neurria eta halako gauzak".

EMAKUMEA GIZONA

zergatik?


"Bigarren mailan ari naiz, baina ezinezkoa zait horretatik bizitzeta. Banketxe batean aritzen naiz lanaldi erdiz. Selektioan izan naiz eta bi olinpiadetan, baina jende askok ez nau ezagutzen. Uste dut etorkizunean kirolaz ez den beste zerbaitean pentsatzen hasi beharko dudala".

EMAKUMEA GIZONA

zergatik?



MUNDUA. NIRE MUNDUA. GURE MUNDUA



EMAKUMEEN MUNDUA

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

ZU ERE KAZETARI ▶ Idatzi ezazu laukian izenburu bat eta albiste labur bat, kontuan izanda ezker aldeko datuak. Kontuan izan itzazu albiste orok erantzun behar dituen oinarriko galderak: non, zer, noiz, non eta zergatik.

EMAKUMEEN BOTO-ESKUBIDEA

Zeelanda Berria	1893	Estatu Batuak	1920
Australia	1901	Austria	1923
Finlandia	1906	Espainia	1931
Norvegia	1913	Frantzia	1945
Danimarka	1915	Italia	1945
Holanda	1917	Txina	1947
Errusia	1917	Kanada	1948
Ingalaterra	1918	Japonia	1950
Alemania	1918	Mexiko	1953
Suedia	1919	Suitza	1971

MARY ELLIOT ELKARRIZKETATU ▶ Ezagutzen al duzu Billy Elliot, dantzari izan nahi zuen mutila? hau Mary da, bere lehengusina. Idatzi itzazu laukian elkarrizketa batean eginen zenizkion galderak eta honek emanen zituen erantzunak.



MARYk laisterketa motorrak gidatu nahi ditu munduko motor-lasterketa zirkuitu ospetsuenetan. Oso mekanikari ona da. Begiak estalita desmuntatu eta muntatzen ditu motorrak eta bere zilindrak abiadura marka hautsi du.